

# hondo-hondotik

Begoña Sagarzazu eta Tomax Karrera

(Preso ohiak)

## Askatasuna eta sakabanaketa

**E**rakunde terroristatzat hartzen ez zuten garai haietan, Amnistiaren Aldeko Batzordeek euskal preso politikoen sakabanaketa fenomeno anitza zela salatzen zuten. Hots, neurri desberdinek osatzen dutela sakabanaketaren politika penitentiarioa, non eskubide bortxaketa eta zigor ugari biltzen diren. Beraz, hasieratik politika penitentiario horri jarraipen zehatza egin beharko zioten giza eskubideen defentsan aritzen diren elkarre zein instituzioek. Arlo honetan dagoen defizita, hau ere guztiz demokratiko eta aurrerakoa, eskerga da. Iniziatiba osoa familiarrek baitaramate, eta ez dago ez alor politikoa ezta sindikalean ere behar den konpromisoa, eguneroko eskubide bortxaketa honi amaiera emateko, ezta agertzen diren ondorio larriekin amaitzeko beharrezkoa den babesia. Are lotsagarriagoa da giza eskubideen defentsaren arduradun instituzionalek daramaten erabateko pasotismoa edo amaigabeko ihesa.

Eta egunkariak ireki besterik ez da egin behar jakiteko sakabanaketa gogortu egin dela. Zenbait adibide begi-bistakoak dira:

- Lehen errealitatea presoen kopurua igo egin dela izanik. 600 euskal preso politiko daude. Inoiz egon den preso politikoen kopururik altuena. Inoiz ez dira hainbeste preso egon Bidasoatik behera, baina errealitate hau garbiago agertzen da Frantziaren.

- Bigarrena, urruntze fisikoa handitu egin da. Epaitu gabeko presoek Galizia eta Andaluziako espetxeak betetzen dituzte. Hauekin batera, zigortuek Extremadura eta Levante izaten dituzte destino arruntak. Frantziako Gobernuak Paris inguruan mantentzen dituen arren, epaitu ondoren Marseille eta Frantzia sakonera bidaltzen ditu.

- Preso gaixoak. Madrilen jarrera aldaketa nabaria da. Azken urteetan, zenbait preso sendaezin askatzea eta hainbat preso Euskal Herriratztea, hemen ebakuntza egin diezaieten lortu bazen ere. Gaur egun, Juan Bautista Barandaia, Sergio Fernandez Aauri eta Koldo Elizetxearen kasu sendaezinak hor ditugu demostartzeko nola berriro PPren gobernuak euskal presoen osasuna erabiltzen duen pre-

so eta familiarrek zigortzeko, espetxean mantenduta inolako helburu politikorik gabe, ez bada gobernuaren jarrera erakusteko. Nahiz eta jarrera hau estatu biolentziaren adibidea besterik ez erakutsi. Kaleratu berria den Iñigo Azkueren kasuak ematen digu arrazoia. DGIPEk ukatu zion 92. artikulua aplikazioa, nahiz eta Langraitz espetxeko Erregimen Batzordeak aho batez hala eskatu. Baskongadetako zaintze epaileak aplikatu dio 92. artikulua. Beste arrazoi bat gehiago Euskal Presoak Euskal Herrian egon daitezten.

Atal honetan, torturaren aztarnak begibistakoak dira bi presorengan. Mikel Sarnargimiro, saiheats bat hautsi ziotena, eta Simone Begiristain, buruan jasandako golpeen ondorio latzak oraindik argitzeke daudelarik.

- Baldintzapeko askatasuna eta isolamenduari dagokionez, inolako aldaketarik ez dago. Euskal preso politikoez azken eguna arte espetxeraturik eta ahal diren bizi baldintza kaxkarretan jarraitu behar dute. Ia 100 bahiketa legalak, inolako erantzunik gabe.

- Beste bizi baldintzei dagokionez, bisita eskubideen murrizketa, ikasteko eskubideen bortxaketa eta unibertsitateko irakasleek jasotako debekua tutoretzak gauzatzeko beste adibideak dira. Eta orain dela zenbait urte Salto bezalako espetxeak betetzen zuen papera, bizi-baldintza kaxkarretan euskal presoak jarraipen zehatz mehatza egiteko, egun Alkolea espetxeak betetzen du funtzio hori.

Baina PP-ren gobernuaren saiakera lehen garaiko sakabanaketa baino haruntzago doa. Urteetan zehar, legedi penitentiarioaren ikuspegi eta aplikapena, neurri handi batean, Zaintza epaileen eskuetan zegoen. Banatze geografikoak ikuspegi eta aplikapen desberdinak sortzen zituen, Taifas-eko araudia praktikan. PP-k ikuspegi desberdin hauek bildu eta ikuspegi atzerakoi eta eskubideen murriztuena inposatzen ditu. Ondorioak berehala nabaritu dute presoek. Erredentzioen murrizketak, funtzionarioen inpunitearen areagotzea eta ondorioz harrotasunez beteriko jarrera aldaketa eta jipoien ugalketa.....

Hau dela eta, bizi-baldintzak okertu direla, lagun bat inolako arrazoirik gabe ji-

### ISILTASUNA

Giza eskubide eta kaltetuei buruzko isiltasunak eta diskurtso hutsalak ez dira baliagarriak

### SAKABANAKETA

Zer helburu ditu sakabanaketak? Zer helburu lortu ditu? Sufrimendua areagotzea

poitu dutela, ospitalera beste lagun bat ateratu nahi ez zutelako... berehalako erantzuna eman dute hainbat espetxetan: Algeciras, Alcalako neskak eta mutilak, Cordoba.....

Errealitate gordin hau denboraz mantentzen da eta estatuen aldetik ez dago inolako borondaterik aldatzeko. Komunikabideetan islatzen ez den estatu biolentzia. Zuzenki preso zein familiarrek pairatzen dutena baina giro politiko zein soziala nahasten duena. Ez al da garaia sakabanaketarekin amaitzeko? Nahi dugun ikuspegitik ikusita ere zer helburuak ditu sakabanaketa? Zer helburuak lortu ditu? Sufrimendua areagotzea besterik ez. Bide honetatik ez goaz inora eta norbaitek esan beharko dio gobernu sorgor honi aski dela, beste bideak posibleak direla eta jorrazteko prest dagoela euskal gizartea. Sakabanaketa, tortura, elkarrizketa politiko eza eta PPren kultura politikoak ez dute ezer konponduko eta gero eta beharrezkoago den aldaketaren eragileak hiritar xumeok izan behar dugula.

Urteak joan, urteak etorri eta betiko lokamutsean murgilduak jarraitzen dugu. Beraz, tortura, alderdi eta elkarrean ilegalizazioa, sakabanaketa, hots, errepresio mota desberdinak, tresnak hutsak dira. Madrilek eta Parisek egiten duten hauen erabilera indar politiko, sindikal eta sozial orok aztertu beharko lituzkete eta alternatibak eskaini, jarrera argiak eta garbiak plazaratu. Hau da, EAJ, EA, IU, ELA eta abarrekoek duten gainditu gabeko asig-natura. Hau da urtetan zehar, errepres-

liatuok eta familiarrek jasotako iraina. Giza eskubide eta kaltetuei buruzko ixiltasunak eta diskurtso hutsalak ez dira baliagarriak benetako konponbidea bilatzen dutenarentzat. Hau dela eta, Askatasuna bezalako elkarrekin ezinbestekoak dira.

Hots, estatu eta gobernuen jarrera okerak salatzeke eta bake eta oinarri demokratikoen gauzatzeko tresna da terroristatzat hartu duten Askatasuna elkarrekin. Berez, Askatasuna balore bat da eta ez baldin badago, askatasuna eraiki behar dugu, elkarrekin eraikiz, beharrezko tresna delako euskal gizartea biltzeko errepresaliatuen eskubideen defentsan, pake eta oinarri demokratikoaren onarpenaren inguruan: Maroño, Ibaeta, Lizarra eta hamaika herri plataforma eta foro desberdinetan parte hartzearen patrimonioa ezin da alperrik galdu, urte guzti hauen altxorra mantendu eta handitu behar dugu. Erronka honetan denok parte har dezakegu. Azken finean, errepresaliatuen eta askatasun demokratikoen defentsak Euskal Herriko osasun demokratikoa aberasten du.

Herrietako plataformetan aritutakoak, preso ohiok, familiarrek, askatasun demokratikoen defendatzaileak, konponbide demokratikoen beharra bizi eta sentitzen dugunok, eta honen baitan amnistia defendatzen dugunok.... bildu, elkarrizketa ugari burutu eta lan soziala aurrera eramanez ziurtatuko ditugu errepresaliatuekiko elkartasuna eta Euskal Herrian merezi duen konponbide demokratikoa gauzatzeko beharrezkoak diren gizarte baldintzak sortuko ditugu. Euskal Herriak Askatasuna behar duelako.

Baina askatasuna, edozein balore bezala, landu eta defendatu egin behar da, eta horretarako mobilizazioa ezinbestekoa da. Beraz, uztailaren 26 eta 27-an eta abuztuaren 4-an, Euskal Herriko karrika, errepide eta hondartzetan burutuko diren mobilizazioetan gure parte hartzearen konpromezua adierazi nahi dugu eta euskal gizarte oroari gonbitea luzatu nahi dugu mobilizazio horiekin bat egin eta parte har dezan.

Artikulu hau honakoek ere sinatu dute: Itziar Galardi, Koro Egibar, Mixel Sarasketa eta Iñaki Reta.

## Zor ekologikoa eta kanpo zorra

(Aurreko orrialdetik dator)

toko protokoloan %5eko murrizketa jasota dago. Eta bidegabea da, gainera, eskuratutako eskubideetan oinarritutako sistema bat delako. 1990eko kutsadura mailak hartzen ditu erreferentziatzat, eta haietan oinarrituta erabakitzen ditu murrizketa mailak; hortaz, lehenago ere gehien kutsatzen zutenak saritzen ditu. Ez

du ekitate-esparru bat sortzen, pertsonak, bizi diren herria gorabehera, emisio eskubide berak izan ditzaten.

Egoera bidegabe hori dela-eta, CO<sub>2</sub>-ren emisioei dagokionez, hainbat politika ezarri beharko lirakeke, kontzeptu hauek kon-tuan hartuta:

- Bateratasuna: pertsona guztiek kutsatzeko eskubide berak izan beharko lituzkete, bizi diren herria gorabehera.

- Murrizketa: emisioak benetan murrizteko politikak erabili beharko lirakeke atmosferako CO<sub>2</sub> kontzentrazioan oreka mailak lortzeko.

- Ordaina: gutxien industrializatutako herriei ordaina eman behar zaie, beren ingurumena erabili delako herri industrializatuenen gehiegizko kutsaduraren bitartez.

Urtero murriztu behar den karbono kopurua 3.000 milioi tona ingurukoa denez gero (Europako Batasunaren kalkuluen arabera, ezarritako gehieneko mailetatik gorako tona bakoitzeko 100 euroko isuna

jarri behar da), horren guztiaren ondorioz 300.000 milioi euro joango lirakeke herri kutsatzaileetatik gutxien industrializatutako herrietara zor ekologikoaren azpiatal horrek soilik eraginda. Ordain hori gizarte eta ingurumen proiektuetan erabili beharko lituzkete, herritarrei mesede egin eta energia berriztagarriak sustatzeko.

Zor ekologikoa onartu eta ordaintzeko nazioarteko kanpainak kanpo zorrarekin alderatzen du zor ekologikoa, eta honako hau galdetzen: «Nor da noren zordun?».